

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresak bizi irauteko Cleanwinrob produktuari begira, teknologia oso aurreratua duen elementua da, hori dela eta teknologia berrien munduan erabat aktualizatuak egon behar dugu, zaharkituak eta atzeratuak ez geratzeko. Horregatik, garrantzi handia ematen diogu Berrikuntza Garapena eramaten duen enpresarekin erlazio zuzena izatea.

Cleanwinrob-a beste enpresa batek ekoiztuko dituenek, honekin ere erlazio zuzena izango dugu gure estoka eta gure produktua salduko duten beste enpresen estoka nahikoa izanez. Hasieratik saiatuko gara estoka hutsik ez izaten, honek galerak ekar diezazkiguketelako. Gure enpresa izango da produkzio kantitatea zehaztuko duena, nahiz eta salmenta fisikoko tokiek beraiek izan beraien salmentaren arduradunak.

Produktuaren diseinuaz eta honek behar dituen materialaz eta kalitateaz arduratuko direnak, gu izango gara. Benetan guk nahi dugun erantzuna izateko, pertsonalki joango gara produkzio enpresara eta dena ondo doala eta gure beharrak asetzen dituela aztertuko dugu pertsonalki.

Aipatu beharra dago gure jarduerari dagokionez, denbora eta errekurtsio asko inbertituko ditugula gure web orri propioan. Bertan, edozein motatako tutorialak eskainiko ditugu, azalpen ezberdinekin. Produktuaren bizi iraupena ahalik eta gehien luzatzeko, garbikuntza eta mantenu irizpideak egongo dira bai eta produktu bereziak, hauek aurrera eramateko.

Bezeroekiko harreman pertsonalizatua sustatzeko, hizkuntza ezberdinak dakizkin jendea egongo da gure taldean eta beti barnean, etengabeko prestakuntza izango dugu langileok, bezeroen kasu pertsonalak aurrera eramateko.